Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko ekainaren 6a, asteartea — 107 — Martes, a 6 de junio de 2017

# GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### EKONOMIA SUSTAPENEKO, LANDA INGURUNEKO ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUA

*Oinarri arautzaileak, landareen izurriteen eta gaixotasunen aurka Kontrol Biologikoko Organismoen eta feromonen erabilera Sustatzeko laguntzei buruzkoak.*

Diputatuen Kontseiluak 2017ko maiatzaren 30eko bileran honako erabakia hartu du:

2002ko azaroaren 20ko 43/2002 Legeak, landare osasunari buruzkoak, orokorrean landare osasunari buruzko irizpideak eta jarduerak arautzen ditu eta bereziki izurriteen aurkako borroka eta prebentzioa.

Partikularren betebeharren eremuan, nekazariaren ardura da izurriteak, landaketak eta bere jarduerarako materialak zaindu eta kontrolatzea, eta araudiak ezartzen dituen neurri ofizialak betetzea.

Izurriteen aurkako eragin gutxiko edo eraginik gabeko aukera biologikoak aurkitzeko ahaleginean nabarmendu behar da borroka biologikoaren, kolorezko tranpen eta feromonen erabilera. Kontrol biologikoa, hau da, izurriteen aurka intsektu harrapariak erabiltzea, fitosanitario kimikoak ez erabiltzeko aukera bat da. Kolorezko tranpak substantzia likatsu batekin estalitako laminak dira: landaketentzako kaltegarriak diren intsektuak erakartzen ditu kolore espezifiko baten arabera eta lamina horietan erantsita gelditzen dira. Feromonek intsektuen ugalketari eragiten diote eta, beraz, hurrengo belaunaldirako populazioa gutxitzea. Aukera horiek erabiliz, ekoizleak zero zabor lortzeko gertuago daude, merkatuek hori eskatzen baitute fitosanitario kimikoak erabiltzeko orduan.

Horrela, landare osasuna hobetzeko borroka biologikoko metodoak sustatze aldera, proposatzen da diru laguntzak ematea Gipuzkoako Lurralde Historikoko urteroko aurrekontuetan xede horretarako jasotako baliabide ekonomikoen kontura.

2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 16.1. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Diputatuen Kontseiluari dagokio diru laguntzen oinarri arautzaileen baimena ematea.

Horrenbestez, Diputatuen Kontseiluak, Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKI DU

*Lehenengo.* Diru laguntza hauen oinarri arautzaileak onartzea: landareen izurriteen eta gaixotasunen aurka kontrol biologikoko organismoen eta feromonen erabilera sustatzeko diru laguntzena; erabaki honen eranskinean jaso dira.

Ezarritako diru laguntzak 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1408/2013 (EE) Erregelamenduak (nekazaritzako pro-

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, MEDIO RURAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

*Bases reguladoras de las ayudas para el Fomento del uso de Organismos de Control Biológico y feromonas en las plagas y enfermedades de los vegetales.*

El Consejo de Gobierno Foral, en su reunión de 30 de mayo de 2017, ha adoptado el siguiente acuerdo:

La Ley 43/2002, de 20 de noviembre, de sanidad vegetal, articula los criterios y las actuaciones aplicables en materia de sanidad vegetal, en general, y de prevención y lucha contra plagas, en particular.

En el ámbito de las obligaciones de los particulares, se responsabiliza a los agricultores y agricultoras de la vigilancia y el control de las plagas, los cultivos y los materiales objeto de su actividad, así como de la ejecución a su cargo de las medidas oficiales obligatorias que se establezcan reglamentariamente, en su caso.

En la apuesta por la búsqueda de alternativas biológicas de bajo o nulo impacto en la lucha contra las plagas destacan el empleo de la lucha biológica, el uso de trampas cromáticas y el uso de feromonas. El control biológico es un método alternativo a la utilización de fitosanitarios químicos mediante el empleo de insectos depredadores contra las plagas. Las trampas cromáticas son láminas cubiertas de una sustancia pegajosa en la que quedan adheridos los insectos perjudiciales para los cultivos, que son atraídos por los colores específicos que estas disponen. Con la utilización de feromonas se perturba el comportamiento reproductor de los insectos que se traduce en una reducción de las poblaciones en la generación siguiente. Con estas alternativas, las personas productoras están más próximas a la nueva tendencia de los mercados de exigir residuo cero en fitosanitarios químicos.

Así, con el fin de promover la mejora de la sanidad vegetal mediante el fomento de la utilización de la lucha biológica, se plantea la concesión de ayudas con cargo a los recursos económicos previstos en los presupuestos generales de cada ejercicio.

Conforme al artículo 16.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, corresponde al Consejo de Gobierno Foral la competencia para la aprobación de las bases reguladoras de la concesión de estas ayudas.

En su virtud, el Consejo de Gobierno Foral, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial, y previa deliberación,

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras del otorgamiento de subvenciones para el fomento del uso de organismos de control biológico y feromonas en las plagas y enfermedades de los vegetales; se acompañan como anexo al presente acuerdo.

Estas ayudas están acogidas al régimen de minimis establecido en el Reglamento (CE) n.º 1408/2013 de la Comisión, de

EK\CV GAO-I-2017-04009

duktuak ekoizteko sektorearen «minimis» laguntzei EE Itunaren 107. eta 108. artikuluak aplikatzeari buruzkoa) xedatutako «minimis» erregimenaren barruan daude.

*Bigarren.* Erabaki honen bidez onartutako oinarri arautzaileek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren hurrengo egunetik aurrera izango dituzte ondorioak.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean. Bide hori erabili aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete partikularrek Diputatuen Kontseiluari, aipatutako egunetik hasita hilabeteko epean. Dena dela, egokitzat hartutako beste edozein ere aurkez daiteke.

Donostia, 2017ko maiatzaren 31.—Alfonso Acarreta Rodríguez, idazkari teknikoa. (4009)

*Oinarri arautzaileak, landareen izurriteen eta gaixotasunen aurka kontrol biologikoko organismoen eta feromonen erabilera sustatzeko laguntzei buruzkoak.*

*1. Diru laguntzen xedea.*

1. Landareen izurrite eta gaixotasunen aurka kontrol biologikoko organismoen eta feromonen erabilera sustatuz landare osasuna hobetzeko diru laguntzak arautzea da oinarri arautzaile hauen xedea.

2. Ezarritako diru laguntzak 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1408/2013 (EE) Erregelamenduak (nekazaritzako produktuak ekoizteko sektorearen «minimis» laguntzei EE Itunaren 107. eta 108. artikuluak aplikatzeari buruzkoa) xedatutako «minimis» erregimenaren barruan daude.

3. Diruz lagundu ahal izango dira landaketen babes fitosanitariorako erabilera duten kontrol biologikoko organismoak, kolorezko tranpak eta feromonak, baldin eta bere helburua landaketaren defentsa fitosanitarioa bada. Elementu horiek ondorengo erregistro hauetakoren batean inskribatuta egon beharko dira:

— Babes fitosanitarioko baliabide batzuen erregistroa, 2014ko azaroaren 14ko 951/2014 Errege Dekretuak arautua.

— Produktu Fitosanitarioen Erregistro Ofiziala.

— Erostean salbuespenezko baimena duten produktuak, 1107/2009 Erregelamenduaren 53. artikuluaren arabera.

Diruz lagunduko dira produktu fitosanitarioak biltegiratzeko armairuak, betiere 2012ko irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuaren 40. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Ez da diruz lagunduko aipatutako babes fitosanitariorako produktuak erostean sortutako BEZa, ezta produktu horiek erostean sortutako zergak edo tasak ere.

4. Subentziona daitekeen gutxieneko gastua 300 euro da.

*2. Diru laguntzen eskatzaileak.*

1. oinarri hauetan araututăko diru laguntzak Gipuzkoako Nekazaritzako Ustialekuen Erregistroan inskribatuta dauden pertsona fisiko edo juridikoek jaso ahal izango dituzte baldintza hauek betetzen badituzte:

1.1. Pertsona fisikoa titular duten ustialekuak:

— Dagozkion ahalmena eta lanbide eskumena eduki beharko du, ekoizpen baliabideen erabilera zuzena bermatuz. Lanbide prestakuntza hori ondorengo irizpide hauen arabera egokituko da:

18 de diciembre de 2013, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis en el sector agrícola.

*Segundo.* Las bases reguladoras aprobadas por el presente acuerdo producirán efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo las personas interesadas interponer contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de su publicación. Con carácter previo a la utilización de dicha vía, las personas particulares podrán interponer recurso de reposición ante este Consejo de Gobierno Foral en el plazo de un mes desde la fecha antes citada, todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime oportuno.

San Sebastián, a 31 de mayo de 2017.—El secretario técnico, Alfonso Acarreta Rodríguez. (4009)

*Bases reguladoras de las ayudas para el fomento del uso de organismos de control biológico y feromonas en las plagas y enfermedades de los vegetales.*

*1. Objeto de las subvenciones.*

1. El objeto de estas bases es la regulación de la concesión de subvenciones para la mejora de la sanidad vegetal mediante el fomento de la utilización de Organismos de Control Biológico y feromonas.

2. Estas ayudas están acogidas al régimen de minimis establecido en el Reglamento (CE) n.º 1408/2013 de la Comisión, de 18 de diciembre de 2013, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis en el sector agrícola.

3. Serán subvencionables todos los gastos de adquisición de organismos de control biológico (OCB), de trampas cromáticas y de feromonas cuyo objetivo sea exclusivamente la defensa fitosanitaria de las plantaciones. Dichos elementos deberán estar inscritos en alguno de los siguientes registros:

— Registro de determinados medios de defensa fitosanitaria, regulado por el RD 951/2014 de 14 de noviembre.

— Registro Oficial de productos fitosanitarios.

— Aquellos productos que en momento de su adquisición se encuentren en situación de Autorización excepcional en base al artículo 53 del Reglamento CE 1107/2009.

También serán subvencionables los gastos de adquisición de armarios de almacenamiento de productos fitosanitarios que cumplan los criterios establecidos para ello en el artículo 40 del Real Decreto 1311/2012, de 14 de septiembre.

En ningún caso será subvencionable el IVA satisfecho en la adquisición de los medios de defensa fitosanitarios mencionados en el apartado precedente, ni cualquier otro impuesto o tasa satisfecho con motivo de su adquisición.

4. El gasto mínimo subvencionable será de 300 euros.

*2. Personas beneficiarias.*

1. Podrán acogerse a las subvenciones reguladas en estas bases las personas físicas y jurídicas titulares de explotaciones agrarias inscritas en el Registro de Explotaciones Agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa que cumplan los siguientes requisitos:

1.1. Explotaciones cuyo titular es persona física:

— Deberá poseer la capacidad y competencia profesionales adecuadas, que garanticen el correcto empleo de los medios productivos. Dicha cualificación profesional se ajustará a los siguientes criterios:

EK\CV GAO-I-2017-04009

a) Erdi edo goi mailako lanbide heziketako tituluak gutxienez lortutako nekazariek behar adinako lanbide prestakuntza eta gaitasuna dutela iritziko da, oinarri hauei begira. Edo Nekazaritza arloko ehun eta berrogeita hamar (150) ordu lektiboko heziketa iraunkorreko ikastaroetan parte hartu izana kreditatu beharko dute.

b) a) paragrafoan ezarritako baldintza betetzen ez dutenek, oro har egiaztatu beharko dute bi urte baino gehiago daramatzatela nekazaritza jardueran, horretarako Nekazaritza Ustialekuen Erregistroko agiria aurkeztuz, nekazaritza ustialeku baten titular gisa, titularkide gisa, edo familiako laguntza gisa.

1.2. Pertsona juridikoa titular duten ustialekuen kasuan:

— 1.2.1. Honako forma juridikoetakoren bat hartu beharko dute:

a) Sozietate zibilak eta titulartasun partekatua duten elkarteak, non eta, gutxienez kideen % 50ak artikulu honek pertsona fisikoak diren titularrei eskatutako baldintzak betetzen dituzten.

b) Kooperatibak, eraldatze nekazaritza sozietateak, lan sozietateak, sozietate mugatuak, sozietate anonimoak edo bestelakoak, betiere, kapital sozialaren % 50 baino gehiago artikulu honek pertsona fisikoak diren titularrei eskatutako baldintzak betetzen dituzten kideena bada.

— 1.2.2. Sozietatea eratzeko dokumentu publikoan, honako hauek ongi definituta geratuko dira:

a) Forma juridikoa.

b) Gutxieneko iraupena, Administrazioak laguntza emateagatik hartutako konpromisoari lotuta.

c) Kapitala Soziala eratzea.

d) Kideek kudeaketan parte hartzea.

2. Eskatzaileak ezin dira egon 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluko 2, 3 eta 4. ataletan diru laguntzak jasotzeko ezarritako debekuren batean sartuta.

*3. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

1. Eskaerak, ezarriko den ereduaren arabera, ustialekuari dagokion Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan aurkeztu beharko dira.

2. Eskatzaile/nekazaritza ustiategi bakoitzeko eskaera bana onartuko da urtean.

3. Eskaerak aurkezteko epea urte bakoitzeko deialdian ezarriko da.

4. Eskatzaileek ez dituzte jada Gipuzkoako Foru Aldundiak badituen dokumentuak aurkeztu beharko, hala xedatzen baitu 53.1.d) artikuluan 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, betiere dagokion prozedura amaitu ondoren ez badira bost urte iragan. Eskaera orrian zein organoren aurrean edo bulegotan eta noiz aurkeztu ziren edo, hala badagokio, jaulki ziren, adierazi beharko da.

*4. Akatsak zuzentzea.*

Eskariak edo horrekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak ez badituzte identifikazio datu guztiak, edo akatsen bat baldin badute, edo osatzeke baldin badaude, 10 egun baliodunneko epean akats horiek guztiak konpontzeko eskatuko zaio eskatzaileari, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak 68.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz; eta ohartaraziko zaio ezen,

a) Los agricultores y agricultoras que hayan alcanzado como mínimo títulos de formación profesional de grado medio o superior en la rama agraria se considerará que poseen una cualificación y capacitación profesional suficiente a los efectos de estas bases. También quienes justifiquen la asistencia a cursos de formación continua en la rama agraria de una duración mínima de ciento cincuenta (150) horas lectivas.

b) En el caso de no cumplir las condiciones establecidas en el apartado a), deberán acreditar más de dos años de experiencia en la actividad agraria, mediante justificante de los años de inscripción en el Registro de Explotaciones Agrarias como titular, cotitular o ayuda familiar de una explotación agraria.

1.2. En el caso de explotaciones cuyo titular sea una persona jurídica:

— 1.2.1. Deberán adoptar alguna de las formas jurídicas siguientes:

a) Sociedades civiles y entes de Titularidad Compartida (TC), en las que al menos el 50 % de sus miembros reúnan los requisitos exigidos por el presente artículo a titulares que sean personas físicas.

b) Cooperativas, sociedades agrarias de transformación, laborales, limitadas, anónimas u otras, siempre que más del 50 por 100 del capital social, pertenezca a socios que reúnan los requisitos exigidos por el presente artículo a titulares que sean personas físicas. Estas sociedades tendrán por objeto exclusivo el ejercicio de la actividad agraria en las explotaciones de la que sean titulares.

— 1.2.2. En el documento público de constitución de la sociedad quedarán perfectamente definidas:

a) La forma jurídica.

b) La duración mínima, que se ajustará al compromiso contraído con la Administración por la concesión de la ayuda.

c) La constitución del Capital Social.

d) La participación de los miembros en la gestión.

2. Las personas solicitantes no podrán estar incursas en ninguna de las prohibiciones para ser beneficiarias de subvenciones, previstas en los apartados 2, 3 y 4 del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

*3. Forma y plazo de presentación de las solicitudes.*

1. Las solicitudes, según el modelo que se establezca, se presentarán en las Oficinas Comarcales Agrarias correspondientes a la ubicación de la explotación agraria.

2. Sólo se admitirá una solicitud de ayuda por solicitante/explotación agraria y año.

3. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria anual.

4. Las personas solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que ya obren en poder de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de conformidad con lo previsto en el artículo 53.1.d) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, siempre que no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan. Deberán indicarse en el impreso de solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos.

*4. Subsanación.*

Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la persona solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, para que, en el plazo de diez días hábiles, subsane los defectos detectados, con indi-

EK\CV GAO-I-2017-04009

eskatutakoa egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatutako legearen 21.1 artikuluan aurreikusitako moduan.

*5. Emateko prozedura.*

1. Diru laguntzak emateko prozedura lehiarik gabeko konkurrentziari dagokiona da, dagoen kredituaren mugen barruan.

2. Laguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, deialdi publiko bidez. Deialdia organo eskumendunak onartuko du eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

*6. Finantzazioa.*

Diru laguntzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdiak ezarriko du diru laguntzak aurrekontuko zein kredituren kargurakoak izango diren.

*7. Prozedura antolatu eta bideratzeko eskumena duten organoak.*

Diru laguntza horiek emateko prozedura bideratzea Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko Landare Alorraren Unitateari dagokio.

*8. Diru laguntzen zenbatekoa.*

1. Diru laguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera finkatuko da, aurrekontuan erabilgarri dagoena kontuan izanda. Diruz lagundu daitekeen gastuaren % 60 har dezake diru-laguntzak, armairu fitosanitarioen kasuan ezik, horiek % 30ean lagunduko baitira. Deialdian ezarriko da pertsona/ustialeku bakoitzaren diru laguntza osoak deialdi horretan gainditu ahal izango ez duen gehienekoa.

2. Eskatutako diru laguntzak 6. oinarrian aipatzen den urteko finantziazioa baino handiagoak badira, hainbanatu egingo da onartutako eskaeren artean.

*9. Diru laguntzak emateko ebazpena.*

1. Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendari Nagusia izango da oinarri hauetan aurreikusitako diru laguntzak eman edo, hala dagokionean, ukatzeko eskumena duena.

2. Ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da; epe hori diru laguntzen deialdia argitaratzen denetik aurrera kontatuko da. Epe hori amaitutakoan ez bada ebazpena jakinarazi, eskatzaileek eskaera ezetsitzat joko dute, administrazioaren isiltasunagatik.

*10. Erakunde onuradunen betebehar eta konpromisoak.*

Erakunde onuradunek diru laguntza onartzeak esan nahi du 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoan, ezarritako betebeharrak eta oinarri orokor hauetatik nahiz dagozkion berariazkoetatik ondorioztatutakoak bete behar dituztela. Horrez gain, honako hauek ere bete beharko dituzte:

a) Erositako osagaiak Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustiategietan erabiliko dira.

b) Landare osasunari eta ingurumenari dagokien indarrean dagoen araudia bete beharko da.

*11. Diru laguntzen arteko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.*

1. Oinarri hauen xede diren diru laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandako xede bereko beste diru laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, direla estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeenak, betiere

cación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 21.1 de ese mismo texto legal.

*5. Procedimiento de concesión.*

1. La concesión de las ayudas se realizará por el procedimiento de concurrencia no competitiva dentro de los límites del crédito existente.

2. El procedimiento de concesión de las ayudas se iniciará de oficio, mediante convocatoria pública aprobada por el órgano competente y publicado en el Boletin Oficial de Gipuzkoa.

*6. Financiación.*

Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

*7. Órganos competentes para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

La instrucción del procedimiento de concesión de estas subvenciones corresponderá a la Unidad del Área Vegetal del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial.

*8. Cuantía de las subvenciones.*

1. El importe de la subvención se fijará con arreglo a la documentación aportada, teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias. Dicho importe será el 60 % del gasto subvencionable, salvo en las inversiones de compra de armarios fitosanitarios, que se auxiliarán en un 30 %. En la convocatoria se establecerá una cuantía máxima por persona/explotación que no podrá superar la subvención total en dicha convocatoria.

2. En el caso de que las ayudas solicitadas superen el importe de la financiación anual a que se alude en la base 6.ª, se aplicará un prorrateo entre las solicitudes admitidas.

*9. Resolución de concesión.*

1. El Director General de Agricultura y Desarrollo Rural será el órgano competente para resolver sobre la concesión o, en su caso, denegación de las subvenciones contempladas en estas bases.

2. El plazo máximo para dictar y notificar la resolución que corresponda será de seis meses. El plazo se computará desde la publicación de la convocatoria de las subvenciones. Transcurrido dicho plazo sin haberse notificado la resolución, las personas interesadas podrán entender desestimada su solicitud por silencio administrativo.

*10. Obligaciones y compromisos de las personas beneficiarias.*

La aceptación de la subvención por parte de las personas beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones vigentes establecidas con carácter general en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, las que se desprenden de las presentes bases generales y, además, a lo siguiente:

a) Los elementos adquiridos deben aplicarse en explotaciones agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

b) Deberá cumplirse la normativa vigente en materia de sanidad vegetal y medio ambiente.

*11. Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones.*

1. Las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales siempre que no

EK\CV GAO-I-2017-04009

ez bada dagokion jarduketaren kostua gainditzen, horren inguruan beste diru laguntzak arautzen dituzten araudiek ezar dezaketenaren kalterik gabe.

2. Oinarri hauetan arautudako diru laguntzen zenbatekoak, bakarka edota bestelako administrazio publikoen edo erakunde publiko nahiz pribatuen diru laguntza edota bestelako laguntzekin batera, ez du inola ere onuradunak erositako defentsa baliabideen kostua gaindituko.

*12. Diru laguntza emateko ebazpenaren aldaketa.*

Diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolanahi ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo diru laguntza hauekin bateria laguntzak jasoz gero, diru laguntza emateari buruzko ebazpena aldatua izan daiteke.

*13. Justifikazioa eta ordainketa.*

1. Onartutako diru laguntzak oso-osorik ordainduko dira ematen diren unean, aldez aurretik egindako gastuaren justifikazioa konprobatu eta gero; justifikazio hori laguntza eskaerari erantsiko zaio.

Hornitzaileek egindako fakturak eta ordain-agiriak ordainagiritzat joko dira, indarrean dagoen legerian ezarritako balio baldintzak betez gero.

2. Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuak jarraipen edo ebaluaziorako bisitak egin ahal izango ditu, edo beste pertsona edo erakunderen bat bidali, laguntza emandako erakundeari aurretik abisatuta, eta erakundeak erraztasunak eman beharko dizkio, behar duen lekuetara joateko eta informazioa eskuratzeko.

Egiaztapen horretatik ondorioztatzen bada diruz lagun daitekeen gastua emandako diru laguntza baino txikiagoa dela edo diru laguntza zuritzeko ezarritako baldintzak edo laguntzaren xede zena ez dela bete, diru laguntza jaso duen erakundeari jakinaraziko zaio egiaztapenaren emaitzekin batera, eta diru laguntza osorik edo zati batean itzultzeko 14. oinarrian aurreikusitako prozedura hasiko da.

*14. Diru laguntzak itzultzea.*

1. Erakunde onuradunak ez baditu oinarri hauetan, berariazkoetan eta gainerako araudi aplikagarrietan ezarritako baldintza eta betebehar guztiak betetzen, diru laguntza osoa edo zati bat eta dagozkion berandutza interesak itzuli beharko ditu, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 35. artikuluan ezarritakoari, eta 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutako garapen araudiko 63. artikuluari eta ondorengoei jarraiki, eta hortik ondorioztaturiko erantzukizunei ere aurre egin beharko die, foru arau horren 49. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraituz.

2. Ez-betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira eta egindako lanen eta proiektu guztiaren eta jasotako zenbatekoaren arteko proportzioaren arabera kalkulatuko dira.

*15. Araudi aplikagarria.*

Oinarri hauen xede diren diru laguntzak, bertan ezarritakoaz gain, 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, eta hori garatzeko emandako araudiak, 2008ko apirilaren 29ko 24/08 Foru Dekretuaren bidez onartutakoak, arautuko dituzte.

Era berean, arautuko dira 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1408/2013 (EE) Erregelamendua (nekazaritzako produktuak ekoizteko sektorearen «minimis» laguntzei EE Itunaren 107. eta 108. artikuluak aplikatzeari buruzkoa) xedatutako «minimis» erregimenaren barruan (Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala, 2013ko abenduaren 24a).

se rebase el costo de la actuación subvencionada, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes.

2. El importe de las subvenciones reguladas en estas bases en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con subvenciones o ayudas de otras Administraciones Públicas, o de otros entes públicos o privados, supere el coste de los medios de defensa adquiridos por la persona beneficiaria.

*12. Modificación de la resolución de concesión.*

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso la obtención concurrente de otras aportaciones fuera de los casos permitidos en las presentes bases, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

*13. Justificación y pago.*

1. Las subvenciones concedidas se abonarán íntegramente en el momento de la concesión, previa comprobación de la justificación del gasto realizado, justificación que se acompañará a la solicitud de subvención.

Se considerarán como justificantes las facturas y comprobantes de pago emitidos por los proveedores, que cumplan con los requisitos de validez establecidos en la legislación vigente.

2. El Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial podrá realizar, por sí mismo o a través de otras personas o entidades, visitas de seguimiento o evaluación, previo aviso a la persona o entidad subvencionada, en las que ésta deberá facilitar el acceso a los lugares y la información que se requiera.

Si como resultado de dicha comprobación se dedujera que el gasto subvencionable ha sido inferior a la subvención concedida o que se han incumplido, total o parcialmente, los requisitos establecidos para la justificación de la subvención o los fines para los que fue concedida la misma, se comunicará tal circunstancia a la persona o entidad subvencionada junto a los resultados de la comprobación realizada, y se iniciará el procedimiento de reintegro total o parcial de la subvención previsto en la base 14.ª

*14. Reintegro de las subvenciones.*

1. El incumplimiento por parte de la persona beneficiaria de cualquiera de los requisitos y obligaciones establecidos en las presentes bases generales y demás normativa aplicable, dará lugar a la obligación de reintegrar la subvención total o parcialmente junto con los intereses de demora correspondientes, conforme a lo dispuesto en el artículo 35 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y artículos 63 y siguientes de su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, y a las responsabilidades que de ello pudieran derivarse, según lo dispuesto en el artículo 49 y siguientes de dicha norma foral.

2. Para graduar los incumplimientos se utilizarán criterios de proporcionalidad, que serán estimados en función de los trabajos realizados respecto a la totalidad del proyecto y a los importes percibidos.

*15. Normativa aplicable.*

Las subvenciones objeto de las presentes bases se regirán, además de por lo dispuesto en las mismas, por la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.

Estarán sujetas, asimismo, al Reglamento (CE) n.º 1408/2013 de la Comisión, de 18 de diciembre de 2013, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis en el sector agrícola (DOUE de 24 de diciembre de 2013).

EK\CV GAO-I-2017-04009